

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Osasun zerbitzuek 133 pertsona artatu dituzten aurtengo Nafarroa Oinez, Tafallan

*Nafarroako Ospitale Gunera lau pertsona eraman ziren, bi traumatismoen ondorioz eta beste bi intoxikazio etilikoagatik*

Lunes, 17 de octubre de 2011

Guztira 133 pertsona artatu dituzte igande honetan Nafarroako Larrialdi Agentziak (NLA) eta Gurutze Gorriak Nafarroa Oinez dela-eta koordinatu duten antolaketako osasun langileek. Aurten Tafallan egin da eta Garcés de los Fayos ikastolak antolatu du.

Iluntzeko 20:00ak arte NLAREN aginte postu aurreratuan zenbatu ziren esku-hartze guztietatik 4 kasutan bakarrik eraman behar izan dira Nafarroako Ospitale Gunera, bi kasutan traumatismoen ondorioz eta beste bitan intoxikazio etilikoaren ondorioz.

Gurutze Gorriko 80 bolondresak parte hartu dute antolaketan, eta ez galtzeko 10.000 pultsera banatu zituzten partaideen artean. Horri esker, galdutako adingabeen senideak edo laguntzaileak aurkitu ziren.

Ibilbideko bost guneetako bakoitzean anbulantzia bat, osasun-postu bat eta sorosleen talde bat jarri zituzten. 3. eta 4. guneak beste anbulantzia bat eta beste talde bat jarrita indartu ziren. Gainera, 3. gunean medikuen postu bat eta jaiarekin loturiko patologien arretarako leku bat jarri zituzten. 4. postuan, kamioi bat eta bizi-euskarri aurreratuko postu bat kokatu zituzten. Helduera eta irteera ordu jendetsuenetan beste anbulantzia bat jarri zuten Tafallako tren geltokian. Tafallatik 21:30ean atera zen azken tren, eta ez zen gorabeherarik gertatu.

Bestalde, Foruzaingoak segurtasun eta trafikorako antolaketa berezia prestatu zuen, eta, horri esker, eguna normaltasunez igaro zen. 51 agente bidali ziren bideko segurtasuna eta trafikoaren arintasuna eta jaira hurbildu ziren partaideen segurtasuna bermatzeko.

Aurreikusi bezala, ibilgailu gehien 10:00ak eta 13:00ak bitarte ibili zen, eta parte hartzaileak 20:00ak baino beranduago zirenean bueltatu ziren etxera. Horren ondorioz, une batzuetan trafikoa moteldu egin zen, baina ez zen gertatu gorabehera handirik.